

"Eman", aldizkari berria

Tierra Vasca, 130. zk., 1967-04: 8.

Caracas'en aldizkari berri bat sortu da.

Sortu dala esatea ez da naikoa. Utsetik ez da ezer sortzen; aldizkari berri bat sortu ba da, norbaitek sortua izan bear du.

Aldizkari berri onen zuzendaria Mardones'tar Prantzisko da Mardones jauna gernikarra da, lege gizona, guda garaiean erresponsabilidade aundiko lana egiña, ta gero, emen, gure Eusko-Etxe'ko lenengoetako lendakari izana. Emengo izparringietan ere maiz idazten du, beti gure erriko gertaeraren bat gai duala.

Ori dana ez da gutxi.

Ta orain, orretzaz gañera, eusko aldizkari bati eman dio bizia.

Aldizkari onek EMAN izena da.

Ez dakit batere, bañan gernikar onek ez ote du, gero, Iparragirre'k Gernika'ko arbolari esan zion "Eman da zabalzazu"tik artuta jarri.

Ta alaxe ari da aldizkari au lenengo alitik asita, ematen: euskel arazoak erakusten eta astintzen, gure erriak dituan edo izan zituan gizonak goraltzen.

Emen daukat EMAN'en bigarren alea, atera berri-berria.

Aurrena datorren lana, gure Urtiaga'tar Estepan, Lauaxeta, aundiaren oroipen eder bat. Ederra benetan. Ibiñagabeitia'tar Andima, euskel idazleetatik onenetakoa degunak, idatzia dago. Ba ditu idazlan onek bi alde eder:

Bata: Andina, Lauaxeta'ren gazte-laguna zan, alkarrekin ikastaroak egiten izanak; nork urrutitik bakarrik ezagutzen genuen Lauaxeta abertzale ta poeta aundi onetzaz obeto itz egin?

Bestea: Nork aberatsago ta xamurkiago ta sakonago Lauaxeta'ren eriotzaren ogei ta amar garren urtea begien aurrean dar-darka jarri?

Lauaxeta beraren lan eder bat ere ba dakar EMAN ale onek: "Mendigoxaliarena" izeneko poema bat.

Gero, beste euskotar langille baten berri ere ematen digu: Gotzon Elorza, zinegillea. Elorza zinegille argi au Paris'en bizi da, ta an ari da euskel itz eta euskal musikarekin jantzitako zinea egiten.

Kultura zaillean, euskerazko ta erderazko liburuen ematen digu EMAN'ek argi asko. Andima'k bi liburu aitatzten ditu: Etxeberria'tar Juan Angel, santurtzearraren, "Maitale galdua", ta Itziar'tar Martin azkoitiarraren "Gure txoriak". Eta Mardones'ek erderazko bi: "L'eglise d'Espagne a l'heure du Concile", eta "La conciencia cristiana y los nacionalismos", biak garrantzitsuak.

Amezaga'tar Bingen'en idaz-lan jakingarri bat ba dator.

Arozena'tar Pruden'en euskera aldeko lan eder bat ere ba dator, eta Salvador de Madariaga'ren lan zirikatzaile bat ere bai.

Au da EMAN'en asmoa, gure gogoak zirikatu, berri-gosetu, gure erriaren bideak billatu.

Mardones jaunak ekin dion lana ez da makala. Ezer egitea kostatzen zaigu! Ta egiten dana goraldtu bear digu. Batez ere inguruan nabarmentzen dana utzikeria ta alperkeria danean.

Bajondaizula, Mardones'tar Prantzisko.